



LANDA EREMUKO UDALTALDE 21 PILOTUA



Tokiko Agenda 21. Alkiza
Behin-betiko Ekintza Plana

haizea

PAISIA

Izenburua / Título:	Tokiko Agenda 21. Alkiza. Behin-betiko Ekintza Plana			
Egileak / Autores:	Oinarrizko Lantaldea: Garbiñe Olaberria (Kontrataturiko Teknikaria), Maider Etxaide (Haizea, S.L.), Miren Askasibar (Paisaia, S.L.)			
Hartzaileak / Destinatarios:	Alkizako Udala			
Edizio data / Fecha de edición:	2006ko otsailaren 23an			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	22			
Bertsioa / Versión:				
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:	2005.eko urtarrilak 10			
Iraupena / Duración:	12 hilabete			
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

AURKIBIDEA

SARRERA	4
LERRO ESTRATEGIKOEN ZERREDA	5
HELBURUAK	6
LE1. Etxebizitza, oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea bermatu. 6	
LE2. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.	8
LE3. Ur/Energia/Hondakin zerbitzuak hobetu.	8
LE4. Udalerriko ekonomiaren sustapena eta dibertsifikazioa lortu	9
LE5. Baserri bizitza mantendu eta suspertu, naturaren, paisaiaren, ondare kulturalaren eta herri nortasunaren mantenuan duen garrantziarekin uztartuz	9
LE6. Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen eragina murriztu	10
LE7. Udal kudeaketa hobetu eta herri kohesioa sustatu.....	10
EKINTZA PLANA	12

SARRERA

Ekintza Plan hau osatzeko, lehendabizi, Diagnostikoaren ondorioetatik abiatuz, herriaren norabidea hurrengo urteetan zuzenduko duten helburu batzuk finkatu dira. Helburuak Lerro Estrategikoetan kondentsatu dira, eta Lerro Estrategiko bakoitza Programen bidez garatu da. Azkenik, Alkizak bere buruari markatu dizkion erronkei erantzungo dieten Ekintzak definitu, eta dagokien Lerro Estrategiko eta Programan kokatu dira.

Ekintza horiek, herritarrek (elkarrizketetan, Herri Batzarretan eta bestelako ekintzetan), udal teknikariek eta Udal Ordezkariek proposatutakoak dira. Ekintza plana herritarrekin lantzeko egindako Herri Batzarrean, Alkizako Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean bigarrena, herritarrek lehentasunezko jotzen dituzten ekintzak identifikatu dira. Herritarren lehentasunak ezagutu ondoren, Udal Ordezkariekin egindako bileran Alkizako Udalak bere egiten duen Behin-betiko Ekintza Plana osatu da.

Dokumentu honen lehen atalean Helburuak zehazten dira, eta ondoren Ekintza Plana osatzen duten Ekintzak aurkezten dira. Ekintzen artean, kolorez nabarmendu dira ondoko bi motatakoak:

- Herri Batzarrean herritarren aldetik lehentasunezko jo zirenak.
- Udalaren erabakiz, Behin-betiko Ekintza Planean lehentasuna izango dutenak.

LERRO ESTRATEGIKOEN ZERRENDA

- LE1. Etxebizitza, oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea bermatu
- LE2. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase
- LE3. Ur/energia/hondakin zerbitzuak hobetu
- LE4. Udalerriko ekonomiaren sustapena eta dibertsifikazioa lortu
- LE5. Baserri bizitza mantendu eta suspertu, naturaren, paisaiaren, ondare kulturalaren eta herri nortasunaren mantenuan duen garrantziarekin uztartuz
- LE6. Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen eragina murriztu
- LE7. Udal kudeaketa hobetu eta herri-kohesioa sustatu

HELBURUAK

LE1. Etxebizitza, oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea bermatu

BIZTANLERIA

- Biztanle kopuruaren berreskuratze erritmoa mantendu.
- Herriko gazteak herritik joan ez daitezen lortu.
- Alkiza lo egiteko herri bihurtzea ekidin.
- Kanpotik herrira bizitzera datozenen integrazioa lortu.

JARDUERA EKONOMIKOA

- Ekonomia sustatu eta dibertsifikazioa bultzatu.

ETXE BizITZA

- Gazteentzat etxebizitza eskaintza indartu.
- Baserrien etxebizitza funtzioa sustatu.
- Herriak zenbat hazi behar duen eztabaidatu/hausnartu.
- Etxebizitzen itxurarekiko irizpideak, urbanizazio modu egokiak... finkatu.
- Urbanizazio planifikazioa hobetu, etxeak berriak egitea azpiegituren hobetze/gehitzearekin uztartuz.

oinARRIZKO ZERBITZUAK (DENDA, KUTXAZAINA...)

- Herritarrentzat beharrezko diren oinarrizko zerbitzuak bultzatu.

HEZKUNTZA

- Herriko haur eskola bultzatu.
- Kanpotik herrira bizitzera datozenen haurrak herriko eskolan integratu.
- Eskola eta Udalaren arteko harremanak hobetu.

OSASUNA

- Herrian mediku zerbitzua izatea lortu.

GIZARTE ZERBITZUAK

- Baserrian bakarrik nahiz familian bizi diren 60-65 urtetik gorakoen inguruko gizarte zerbitzuen eskaria aztertu.
- Herritarrek gizarte zerbitzuen gaiarekiko duten sentsibilizazioa landu.

KULTURA

- Kultur ondarearekiko sentsibilizazioa areagotu.
- Kultur ekintzetan izaten den partehartzea hobetu.

KIROLA

- Herriko kirol ekipamendu bakarra, frontoia, eraberritu eta egokitu.

EUSKARA

- Egungo euskararen erabilera eta kalitatea mantendu.
- Euskaraz ez dakiten herritarren artean euskara ikastea sustatu.

AISIA

- Elkarte Gastronomiko edo/eta Herri Elkarte bat sortzearen aukera herritarren eta Udalaren artean hausnartu eta adostu.
- Herrian bertan egin ezin diren ekintzetan parte hartzen duten herritarrei erraztasunak eman.
- Herri txikietakoko eta handietakoko herritarrek aukera berdinak izan ditzaten, eskualde ikuspegia bultzatu.

LE2. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.**MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

- Egoera txarrean dauden errepide tarteetan hobekuntzak egin.
- Herri bideak garbi eta egoera onean mantendu.
- Herri bideen inbentario bat egin.
- Azkar gidatzeko ohiturari aurre egin.
- Garraio publikoko hutsuneen inguruko hausnarketa burutu eta beharren arabera erantzuna eman.
- Bono-taxi zerbitzua ezagutzera eman.
- Udalerrri barruko irisgarritasuna hobetu, batik bat zerbitzuak eskaintzen diren eraikuntzetakoa.

LE3. Ur/Energia/Hondakin zerbitzuak hobetu.**URA**

- Ur hornidura egokia ziurtatu.
- Ur kontsumo eraginkorra sustatu.
- Ur saneamendu egokia ziurtatu.

ENERGIA

- Energia hornidura egokia ziurtatu.
- Eraginkortasun energetikoa eta energia iturri berriztagarriak sustatu herrian eta udal eraikinetan.

HONDAKINAK

- Hondakinen ekoizpen tasa txikitzea eta birziklapen tasa handitzea sustatu.
- Hondakinen kudeaketa sistema hobetzen jarraitu.

- Kontrolik gabeko isurpen puntuak ekidin.

LE4. Udalerriko ekonomiaren sustapena eta dibertsifikazioa lortu

JARDUERA EKONOMIKOA

- Ekonomia sustatu eta dibertsifikazioa bultzatu.

LE5. Baserri bizitza mantendu eta suspertu, naturaren, paisaiaren, ondare kulturalaren eta herri nortasunaren mantenuan duen garrantziarekin uztartuz

NEKAZAL LURRAK

- Nekazal lurak babestu.

BASERRIAREN EKONOMIA

- Lehen sektorea indartu.
- Labeldun produktuak / produktu ekologikoak / kalitatearekin loturiko ziurtagiridun produktuen ekoizpena bultzatu.

BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK

- Baserrietan bizi diren pertsonen bizi baldintzak hobetu.
- Emakumeek baserrian betetzen duten papera aztertu.

NEKAZARITZA, KULTURA, PAISAIA ETA TURISMOA

- Baserritarren lanak errekonozimendua izatea lortu.
- Nekazaritza eta abeltzaintzak herriaren paisaiaren eta nortasunaren mantenuan duen eragina baloratua izatea lortu.

- Paisaiaren kalitatea mantendu.
- Bertako landare espezieen presentzia indartu.

LE6. Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen eragina murriztu

BASO USTIAKETAK

- Pinudiak herrigunera gerturatzea ekidin.
- Basoak garbi mantentzea daitezela sustatu.
- Baso-berritzeetan landareen aniztasuna lortu.
- Zertifikatutako basoak bultzatu.

INDUSTRIA

- Enpresek sortzen dituzten ingurumen inpaktuen kontrola eta jarraipena burutu.
- Enpresen ingurumen zertifikazioak bultzatu.

LE7. Udal kudeaketa hobetu eta herri kohesioa sustatu

ARRISKUEN KUDEAKETA

- Arriskuen udal kudeaketa hobetu.
- Baso suteen aurreko prebentzioa eta baliabideak indartu.

UDAL KUDEAKETA OROKORRA

- Udal kudeaketa orokorra hobetu.

UDAL INGURUMEN KUDEAKETA

- Iraunkortasun irizpideak udal kudeaketan txertatu.

HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

- Herritarren eta udalaren arteko komunikazioa hobetuko duten bideak landu.

PARTEHARTZEA ETA HERRI GIROA

- Herritarren partehartzea areagotu.
- Herri giroa suspertu.
- Kanpotik herrira bizitzera datozenen integrazioa bultzatu.
- Auzolana berreskuratu.

EKINTZA PLANA

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna ¹	Udalarentzat lehentasuna ²
LE1. ETXEBIZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA BERMATU		
P.1.1. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO ETXEBIZITZA POLITIKA GARATZEKO PROGRAMA.		
E.1.1.1. Herritarrek etorkizunera begira herriak zenbat eta nola hazi behar duen hausnartzeko/eztabaidatzeko eta etxebizitzaren itxura eta urbanizazio modu egokiak finkatzeko bilera irekiak antolatu (AASSen berrikuspenarekin lotuta, hasierako fase bezala...).		
E.1.1.2. Etxe berriak egitean, udalaren sustapenekoak direnean, lehentasuna herritarrei ematen jarraitu.		
E.1.1.3. Katalogatutako etxeekiko herritarren sentsibilizazioa landu.		

¹ Laranja, Ekintza Plana lantzeko burututako Herri Batzarrean herritarren aldetik lehentasunezko jo ziren Ekintzak.

² Herri Batzarra ospatu ondoren, Udalaren erabakiz Behin-betiko Ekintza Planean lehentasuna izango duten Ekintzak laranja markatzen dira.

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
P.1.2. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK LANTZEKO PROGRAMA.		
E.1.2.1. Herrian kutxazain bat jarri.		
E.1.2.2. Internet zerbitzua hobetzeko beharrezko gestioak egiten jarraitu.		
E.1.2.3. Sakelako telefonoen operadoreen antenak, ahal bezain eragin gutxien izango duten moduan kokatzera bideratu.		
P.1.3. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERA, HEZKUNTZA ZERBITZUAK SORTU ETA GARATZEKO PROGRAMA.		
E.1.3.1. Haur Eskola martxan jartzeko kudeaketa lanak egiten jarraitu.		
E.1.3.2. Herriko Eskolan berrikuntzak egiten jarraitu. ³		
E.1.3.3. Eskolaren eta Udalaren arteko harremana hobetzeko, Eskola Kontseilutik kanpo, eskola komunitatea osatzen duten eragile guztiak biltzeko bilerak antolatu, eskolarekin koordinatuta.		

³ Ekintza hau Udalak Herri Batzarra ospatu ondoren sartzea erabaki du.

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna ¹	Udalarentzat lehentasuna ²
P.1.4. UDALERRIKO OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BALDINTZAK BEHARREI EGOKITU ETA GARATZEKO PROGRAMA.		
E.1.4.1. Sendagilea herrian astean behin edo bi astez behin izateko aukera aztertu.		
E.1.4.2. Aurreikuspenak egin ahal izateko, etorkizunean izango diren hirugarren adineko eta pertsona elbarrituei buruzko azterketa egin.		
E.1.4.3. Udalaren kompetentzia diren kasuetarako (autonomoentzat) irizpideak finkatu diru laguntzak emateko.		
E.1.4.4. Familia ugariei zergetan beherapenak aplikatu.		
E.1.4.5. Herritarrei gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzu desberdinei buruzko informazioa eman.		
E.1.4.6. Herritarrekin harreman estua izan dezaketen eragileak gizarte zerbitzuetako eskaintzaren berri izatea lortu.		
E.1.4.7. Don Juanena eraikina berritu gizarte zerbitzuak eskaintzeko bokazioarekin. ⁴		
E.1.4.8. Don Juanena etxea berritzean bertan eskain daitezkeen gizarte zerbitzuei buruzko azterketa bat burutu.		

⁴ Herri Batzarrean herritarrek lehentasuna eman zioten Don Juanena eraikina berritzeari, baina ez zen adostasunik jaso zerbitzuen inguruan. Horregatik, ez da markatu ekintza honetan herritarren lehentasuna.

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
P.1.5. UDALERRIKO BEHARRETARA EGOKITUTAKO AISIALDIA, KULTURA ETA KIROL ZERBITZUAK ESKAINTZEKO PROGRAMA.		
E.1.5.1. Kultur ondarearen inguruko sentiberatasuna sustatzeko, egin berria den herriko ondarearen azterketa komunikazio ekintza bat burutzeko erabiliz.		
E.1.5.2. Alkizak duen kirol ekipamendu bakarra, frontoia, eraberritu edo berria eraikitzeko aukerak eztabaidatu, eta bertan gimnasio bat egokitzeko beharra aztertu.		
E.1.5.3. Elkarte Gastronomiko edo/eta Herri Elkarte bat sortzeko aukera eztabaidatu/adostu, udalaren eta herritarren artean.		
E.1.5.4. Herrian bertan egin ezin diren euskara ikasteko, kultur, kirol eta aisialdi ekintzetarako urteroko dirulaguntzak eskaini edo inguruko herrietako erakundeekin hitzarmenak sinatu.		
E.1.5.5. Kultur "astea" antolatu maiatzean herriko elkarte guztien artean.		
E.1.5.6. Landa eremuko kulturari loturiko ekintzak antolatu.		
E.1.5.7. Kubako Alquizar herriarekin senitartu.		
P.1.6. UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA MANTENTZEKO PROGRAMA.		
E.1.6.1. Mintza praktikak egiteko taldeak sortu euskaldun zahar eta berrien artean.		
E.1.6.2. Herriko erdaldunei euskalduntzen laguntzeko baliabideak ipini.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
LE2. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE.		
P.2.1. BIDE SAREA HOBETZEKO PROGRAMA.		
E.2.1.1. Asteasutik datorren errepidea konpondu eta zenbait zatitan zabaltzeko Foru Aldundiarekin harremanak mantendu.		
E.2.1.2. Herri bideak garbi mantendu.		
P.2.2. AUTOMOBILAREN ERABILERA ARRAZIONALA BULTZATZEKO PROGRAMA.		
E.2.2.1. Herri barruan autoen eta oinezkoen arteko koesistentzia hobetzeko alternatiba desberdinak aztertu eta gestio-harremanak mantendu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. ⁵		
P.2.3. GARRAIO PUBLIKOA HOBETU ETA BERONEN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA		
E.2.3.1. Garraio Publikoaren erabileraren eta beharren inguruan hausnarketa egin.		

⁵ Herri Batzarrean eztabaidatu ziren ekintza ezberdinak ekintza global honetan bildu dira Behin-betiko Ekintza Plana osatzeko momentuan.

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
P.2.4. UDALERRIAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO PROGRAMA.		
E.2.4.1. Irisgarritasun plana diseinatu eta betetzen joan.		
E.2.4.2. Udaletxera, kultur etxera eta eraikuntza berrietara erraz iristea ahalbideratzeko oztopo arkitektonikoak kendu ahal den neurrian.		
LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.		
P.3.1. UR HORNIKUNTZA ETA ARAZKETA SISTEMAK HOBETU ETA UR KONTSUMOA MURRIZTU ETA ERABILERA ERAGINKORRA BULTZATZEKO PROGRAMA.		
E.3.1.1. Bi deposituen irteeretan kontagailuak jarri.		
E.3.1.2. Uraren prezioa kostuarekin parekatzen joan.		
E.3.1.3. Udalarena den hobi septikoaren kudeaketa eta garbiketa egokiak burutu.		
E.3.1.4. Hobi septiko pribatuen egoeraren kontrola burutu.		
E.3.1.5. Hobi septikoen garbiketa komuna koordinatu.		
E.3.1.6. Herrigunetik kanpo dauden etxeetan hobi septiko komunak ezartzeko beharra aztertu eta arautu.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
P.3.2. ENERGIA HORNIKUNTZA SISTEMA HOBETZEKO PROGRAMA.		
E.3.2.1. Gas depositu kolektiboak bultzatu.		
E.3.2.2. Baso eta nekazal errekurtsioak energia lortzeko erabiltzeko aukerak aztertu.		
P.3.3. ENERGIAREN KONTSUMO ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEKO PROGRAMA.		
E.3.3.1. Energia berriztagarrien inguruko informazioa eskuratu eta zabaldu, EVErekin harremanetan.		
E.3.3.2. EVErekin hitzarmena sinatu udal eraikinen efizientzia energetikoari buruzko azterketa egiteko.		
P.3.4. HONDAKINEN EKOIZPENA MURRIZTU ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.		
E.3.4.1. Tolosaldean zabor bilketa mankomunatua martxan jarri.		
E.3.4.2. Zabor kudeaketan egin diren berrikuntzak (lurrazpiko edukiontzien ezarpena) zergetan islatu eta herritarrei komunikatu.		
E.3.4.3. Eskualde mailako informazio kanpaina bat burutu, Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri emanaz.		
E.3.4.4. Arroparen bilketa eta etxeko olio eta hondakin arriskutsuen bilketa ibiltariak mantendu.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
E.3.4.5. Enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketarako Gipuzkoako Merkataritza Bazkundearekin Mankomunitateak duen hitzarmena mantendu.		
E.3.4.6. Eskualdean bigarren Garbigunea ireki, Tolosako San Blasen.		
E.3.4.7. Konpostaia esperientzi pilotua martxan jarri eta proiektuaren jarraipena burutu.		
E.3.4.8. Anoeta aldeko bidean, Garbigunetik kilometro batera, dagoen kontrolik gabeko isurketa puntuaren egoera eta konponbidea aztertu, inplikaturako beste erakundeekin harremanetan jarritz (Tolosaldeko Mankomunitatea, Foru Aldundia, Ihobe).		
E.3.4.9. Silo bolen plastikoak erre ez daitezen eta hauen bilketa zerbitzua ezagutarazteko kanpaina burutu.		
LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU		
P.4.1. EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA.		
E.4.1.1. Enpresa bat irekitzeko interesa duten herritarrak Tolosaldea Garatzeneko zerbitzura bideratu.		
E.4.1.2. Turismoa sustatze aldera, herriaren mapa toponimikoa atera.		
E.4.1.3. Web orrian herriari buruzko informazio eguneratua eduki.		
E.4.1.4. Herrira gerturatzen diren turistengana zuzendutako inguruari buruzko informazio euskarriak sortu eta zabaldu, inguruko herriei batera.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ		
P.5.1. NEKAZAL LURRAK BABESTEKO PROGRAMA		
E.5.1.1. AASSen berrikuspen fasean, nekazal lurra babesteko beharra kontuan izan, eta horretarako beharrezkoak diren aholkularitza lanak eskatu.		
P.5.2. LEHEN SEKTOREAREN EKONOMIA SUSPERTZEKO PROGRAMA		
E.5.2.1. Neurri lagungarriak (bideak garbitzea...) ezartzen jarraitu.		
E.5.2.2. Ernio aldeko larre sailen kudeaketa komunaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu.		
P.5.3. BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO PROGRAMA		
P.5.4. NEKAZARITZA, KULTURA ETA TURISMOA UZTARTZEKO PROGRAMA		
E.5.4.1. Auzolandegien bidez herriko ondarea konpontzen jarraitu.		
E.5.4.2. Landa Eremuko kulturaren elementu esanguratsuak diren eta etorkizunean turismorako baliabideak izan daitezkeen elementuak babestu.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehenetasuna¹	Udalarentzat lehenetasuna²
P.5.5. BASOAK GARBI MANTENTZEKO PROGRAMA		
LE6. UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA MURRIZTU		
P.6.1. JARDUERA EKONOMIKOEN SORTZEN DITUZTEN INGURUMEN INPAKTUEN KONTROLA ETA JARRAIPENA BURUTZEKO PROGRAMA		
E.6.1.1. Pinu landaketak hirigunera gerturatzea ekiditeko araudia garatu.		
LE7. UDAL KUDEAKETA HOBETU ETA HERRI KOHESIOA SUSTATU		
P.7.1. ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA		
E.7.1.1. San Joan suaren antolatzaileei beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartarazi.		
E.7.1.2. Herritarren suteetarako edo beste motatako larrialdietarako prestakuntza hobetzeko aukerak aztertu.		
E.7.1.3. Langileen laneko arriskuen prebentzioko neurriak betetzen joan, urteroko aurrekontuetan sartuz.		
E.7.1.4. Udalak egingo dituen obra guztietan beharrezko segurtasun neurriak beteko direla bermatu.		
P.7.2. UDAL KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA		
E.7.2.1. Iraunkortasun irizpideak eguneroko udal kudeaketan txertatu.		

EKINTZAK	Herritarrentzat lehentasuna¹	Udalarentzat lehentasuna²
E.7.2.2. Bailara bakoitzeko ordezkari bat Udalean izatea bermatuko lukeen sistemaren bat aztertzea.		
P.7.3. HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA		
E.7.3.1. Arau Subsidiarioen berrikuspenean herritarren partehartzea eta herritarrek proiektuaren berri izatea bermatu.		
E.7.3.2. Plenoetako gai-zerrenda alde zurretik panelean jarri.		
E.7.3.3. Plenoetan hartutako erabakiak panelean jartzen jarraitu eta udaleko web orrian ere publikatu.		
E.7.3.4. Herritarrek udaletxera bidalitako idatzi guztiei erantzuten jarraitu		
E.7.3.5. Web orrialdean udal kudeaketari buruzko informazioa eguneratuta mantendu.		
P.7.4. PARTEHARTZEA ETA HERRI-GIROA SUSTATZEKO PROGRAMA		
E.7.4.1. Auzolana sustatzeko, bideren bat garbitzeko edo, deialdi bat egin herritarrei, beti ere beharrezko segurtasun neurriak hartuta.		
E.7.4.2. Tokiko Agenda 21en baitan herri batzarrak egiten jarraitu.		